



Oharrak berritu, biltegiko materiala txukundu, agiriak eskaneatu... denetarik egiten du. **ARGAZKILARIA: Josu Altzelai**

EKINAREN EKINEZ, ETORKIZUNARI SO

Ainhoa Zabala legazpiarrak hiru urte daramatza udaletxean era askotako lanak gauzatzen, adimen urritasuna duten pertsonen zalantzarik gabeko gaitasunaren ispilu

Ez dira bereziak. Are gutxiago, arraroak. Eta horrexegatik, ez zaie aparteko tratamendurik eman behar. Adimen urritasuna dute, baina ez dira ezgaiak. Gai dira aurrean jarritako erronka guztiei aurre egiteko. Euren ohiko tailerretan ez ezik, zeinahi arlotan lan egiteko moduan ere badaudela erakutsi dute. Ekinez aritzen dira. Gogor eta ilusioz. Ainhoa Zabala dugu horren guztiaren lekuko. Hogeita zazpi urteko legazpiar honek hiru urte daramatza udaletxean lanean. Askotariko lanak gauzatzen ditu bertan, eta “oso gustura” dagoela aitortu digu. Gizartean zailtasun handiak daude kolektibo honetako kideek ingurune jakin batzuetan lan egin dezaten; oro har, ez baita horretarako aukera handirik izaten. Alabaina, joera horrek nola gazteentzat hala gizartearentzat onura besterik ekartzen ez duela ohartu direnetik, geroz eta gehiago jotzen da gizarteratze bide horretara. Ainhoaren eta beste hainbaten kasua GUREAK Taldeak egindako apustuaren emaitza da. GUREAK Taldeak erronka bota, eta Legazpiko Udalak enbidoari eutsi. Ondorioz, Ainhoak bertan lan egin dezan kontratua sinatu dute. Alderdi guztiak daude gustura, eta etorkizunean hala jarduteko atea zabalik dago.

Goizeko 09:00etan hasten da Ainhoaren lan jarduna. Alai eta lanerako gogoz joaten da egunero-egunero. Udaletxearen atzeko aldeko iragarki tauletan dauden oharrei erreparatzen die, lehenik eta behin. Iraungita daudenak kendu eta berriak jartzeaz arduratzen da. Biltegiko materiala txukuntzea eta fotokopiagailuetarako orriak jartzea izaten du hurrengo zeregina. Hartara, Ainhoari esker, udaletxeko gainerako langileek dena prest izaten dute euren jardunerako. 9:30 bitartean, txikitu beharreko paper guztia txikitzen du, bulego batean daukaten eta horretarako aproposa den makina batekin. Hurrengo ordu erdia, berriz, Ekonomia Sailean igarotzen du, hango paper eta agiriak eskaneatzen. “Denetarik egitea gustatzen zait, baina beharbada, horixe da gehien gustatzen zaidan zeregina!”, esan digu Ainhoak. Astearte eta asteazkenetan, birritan joan behar izaten du lan hori egitera, eta poztasun bikoitza izaten du horregatik. “Halere, udaletxean, kultur etxean, Gazteria Sailean edo gizarte zentroan... toki guztietan nabil gustura”, aitortu digu. Izan ere, batetik bestera igarotzen du eguna. “Kirola egiten dut, bide batez!” (barreak).

Bere eguneroko zereginekin jarraituta, ondoren, 10:00ak aldera, Correos-era joaten da, eta han dagoen posta guztia ekartzen du udaletxera. Jarraian, posta banatzeaz arduratzen da. “Goizaren erdialderako, udaletxeko sail guztietatik pasatuta egoten da”, zehaztu digu Lurdes Garcia Gizarte Saileko langileak. Bestalde, zeregin berezi bat egiten du Ainhoak 10:30 inguruan: landareak ureztatu. “Urtaroaren arabera ureztatzen ditu. Egutegi bat daukagu, eta haren arabera, egun batean bat eta hurrengoan bestea ureztatzen aritzen da”, azaldu digu Garciak. Hemendik gutxira, botanikan aditua izango dugu.

Los fines de semana aprovecha para hacer lo que le apetece. Le gusta salir con sus amigos/as e ir a pasar el día a Donostia en tren; pasear por allí y comer en algún bar

Atsedendia ere izaten du, jakina, baina berehala jartzen da berriro ere martxan. 12:00ak arte liburutegian izaten da. “Berak oso gustukoa du hango lana, eta bertako langileak ere benetan gustura daude berarekin”, Garciaren hitzetan. “Bai, han oso lan politak egiten ditut”, onartu du Ainhoak berak. Geratzen zaion azkeneko ordua toki batean zein bestean igarotzen du, egunaren arabera: astelehen, ostegun eta ostiraletan, gizarte zentroan. Astearte eta asteazkenetan, berriz, arestian esan bezala, Ekonomia Sailean, eskaneatze lanetan. Gizarte zentroan, telefonoa eta oharrik hartzen ditu. Tarteka-marteka, Gazteria Saileko iragarki taulako oharrik eguneratzerara ere joaten da. Hamaika ardura neska honen bizkar, alajaina!

Lau orduko lanaldiaren ostean, eguerdiko 13:00etan joaten da bazkaltzera. Baina ez pentsa hor bukatzen denik bere jarduna. Ezta urrik eman ere! Ostiraletan izan ezik, gainerako egun guztietan, GUREAK Taldearen tailerrera joaten da lanera. “Lehen, berez, 17:40 arte egiten genuen han lan, baina orain, okupazioagatik, 17:20 arte”, esan du

Ainhoak. Han ere pozik ibiltzen da neska. Beti lanerako prest!

Udalaren eta GUREAK Taldearen arteko kontratua
GUREAK Taldeak apustua egin zuen adimen urriko pertsonen euren tailerretik kanpoko lana egiteko aukera emateko, eta horregatik, kontratua egin zuen Udalarekin. Hala bada, kolektibo horretako kideak nolabait gizarteratzeko erronkari heldu diote bi erakundeek. Hiru urteko ibilbidea egin du bertan, eta udaletxeko langileak gustura asko daude Ainhoaren lanarekin eta presentziarekin. Ibilbide honetan, izenkide bat izan du bidaide Ainhoak: Ainhoa Castellano. Hark egiten ditu bitartekaritza lanak, eta bera da, nolabait esatearren, Ainhoa legazpiarraren arduradun eta erantzulea. “Zeinahi arazo bada, hark esku hartzen du, eta berehala konpontzen dugu dena”, aitortu digu Lurdes Garciak.

Nolanahi ere, Ainhoaren bizitzan ez da dena lana izaten. Eta hala behar! Asteburuetan jai izaten duenez, bere gauzatarako hartzen du denbora. “Lagunekin egotea eta ateratzea gustatzen zait. Zinemara joatea ez dut oso gogoko, eta mendira lehen bai, baina orain oso gutxi joaten naiz”. Donostiarako ohitura ere ba omen dauka: “Trenean joaten gara, eta eguraldi ona eginez gero, hondartzara!”. Behin joanda, egun osoa igarotzen omen dute hiriburuan: “Bueltatxo bat eman, han bazkaldu...”. Eta aitortu digu zer den benetan gehien-gehien gustatzen zaiona: “Dendetan ibiltzea eta arropak erostea”. Arropa politak eta ondo ematen diotenak janztea du gustuko. Beti dotore. “Neu arduratzen naiz nire arropak erosteaz”, esan digu irribarrez, gustura.

Pertsona beregaina da Ainhoa, eta esleitutako lanak primeran egiten dituenez, hitzarmen honetan esku hartzen duten alderdi guztiak daude gustura. Etorkizunerako ere ez da erronka txarra, eta ea kontratuaren itzalpean sortutako harremanak urteetan eta urteetan irauten duen. “Niri asko gustatuko litzaidake hemen jarraitzea denbora luuuuzean”, amaitu du Ainhoak, xarma bereziarekin.

Un ejemplo a seguir

Ella es especial... especialmente agradable, cariñosa y simpática. Está encantada de trabajar en el Ayuntamiento realizando diversas tareas: actualiza el tablón de anuncios de la parte trasera del consistorio, repone el material del almacén y las hojas de las fotocopadoras, destruye los papeles no válidos, escanea documentos, acude a Correos, reparte el correo, riega las plantas, realiza diferentes tareas en la casa de cultura y en el centro social.... Vamos, que no para. Hablamos de Ainhoa Zabala. Joven legazpiarra de veintisiete años que compagina su trabajo en el Ayuntamiento con el trabajo de taller del Grupo GUREAK, gracias al contrato firmado por dicho grupo con el Ayuntamiento de Legazpi, para fomentar que las personas con discapacidad intelectual trabajen en entornos ordinarios. Y ahí encontramos a Ainhoa. Incansable. Alegre. Con unas ganas tremendas de seguir aportando su granito de arena en cualquier trabajo que se le atribuya. Persona que se adecua a los tiempos tanto internamente como externamente: “Me encanta la moda e ir a comprar mi ropa”, reconoce. Ya ha recorrido un camino de tres años que esperemos siga alargándose, puesto que las puertas del futuro siguen abiertas tanto para Ainhoa como para cualquier otro/a joven en su situación. Es sin duda, todo un ejemplo a seguir.